



Gaur ekingo diote Albizturren Kultur Asteari, ekitaldi ugarirekin

HASTEKO ▶ Haurrentzat ipuin kontalaria eta helduentzako hitzaldia izango dira lehen egunean

BEREZIA ▶ «'Bota patsa' izango da deigarriena ekainaren 2an», antolatzaileen ustez ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

«Euskal presoan aldeko dekalogoari ezezkoa eman diote alderdiek»

«Udal hauteskunde kanpainan alderdi politikoek euskal preso politikoak baztertu izana» salatu du Etxerateg ▶ 2

TOLOSA ▶

'El corazon del sur' tango ikuskizuna

Bihar izango da Leidor aretoan, 20:30ean ▶ 6

A. IMAZ



BAKARTXO TEJERIA ▶ EAJ-REN HAUTAGAIA

«Aurretik eginiko lanari jarraipena emango diogu»

«Etxebizitzaren gaia eta gazteriaren beharrak asetzea» du xede ▶ 5

HITZA JASO ETA ABANTAILA GUZTIEZ GOZATU NAHI BADUZU...

Egunean 19 zentimoren truke egin zaitez harpidedun!

eta gainera...

CJ CJ DT
JULIAN DT TOLOSA

urteko kuota ordaintzeko kontu korronteko zenbakia ematen duzuenon artean Tolosako Casa Julian jatetxean afaria zozketatuko dugu.



...eta banaketa txukuna izan dadin giltza ematen duzuenon artean Ortzadar lentzeria-dendan 120€-ko erosketa txartela.



BEZEROARENTZAKO ARRETA ZENBAKIA: 902 820 201

ceinpro
Diseinuar eta kreazioa halmenean oinarritutako enziketa

- DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
IRAILPENA - 2. Kasurte / 2000 ordu
SARRERA - LH1 - LH2 - EE I - edo HSACL BAZKILERGOKI gaitzuta
- ARTE GRAFIKODEN AURBEINPRIMAKETAN TEKNIKARIA
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
IRAILPENA - 2. Kasurte / 2000 ordu
SARRERA - 2. DBE - LH1 - EE I - edo DBE gaitzuta

Logo for 'R' and 'E'.



PRESOAK ▶

«Presoak baztertu dituzte kanpainan alderdi politikoei»

Etteratek «euskal preso politikoei dagozkien eskubideen» dekalogo aurkeztu die alderdiei; hauek ez dute onartu

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Etteratek «udal hauteskunde kanpainan orohar alderdiek presoekin egora aipatu ere ez izana» salatu du. Hala, «euskal presoekin aplikatzen zaizkien salbuespen neurriekin amaitzeko, hala nola, sakabanaketarekin, beraien ingurune afektibo, sozial eta politikotik urruntzearekin, bizi osorako espetze zigorrarekin eta abar» alderdi politikoei kanpainan bildu dira Etterateko kideak «euskal preso politikoei dagozkien eskubideen dekalogo onartua izan dadin». Hain zuzen ere, alderdi politikoei emandako erantzunak («espero ez zituztenak») izan direla adierazi dute, eta «kanpainan gaia ahaztuta dutela eta baztertuak» sentitzen direla salatze kontzentrazioa burutu zuten iragan larunbatean Tolosako Triangulo plazan.

Alderdien erantzunak

Etteratek azaldu duenaren arabera, «PP eta PSE-EErengatik jaso ditugun erantzunak, hau da, ezezkoak, espero genituen, baina besteengatik ez genuen horrelakorik jasotzea espero; Onintza Lasarekin (EAren Tolosako alkategaia), esaterako, hasieran berarekin bildu ginenean ados zegoela dekalogoarekin esan zuen, baina aurrerago, talde guziaren izenean ezezkoa eman zigun; EAJren hainbat alkategai eta hautagairekin ere hitz egin genuen dekalogoaren inguruan konpromisoak hartze aldera: Jokin Bildarratz Tolosako alkateak ETA dela presoak kaleratu nahi ez dituen erantzun zigun; Bakartxo Tejeriak Villabonako alkateak, berriz, ados dagoela dekalogoarekin, baina azken erantzuna ezezkoa dela esan zigun; M. Angeles Lazkanok ez

zela une egokia eta hauteskunde igarotakoan hitz egingo genuela erantzun zigun; besteik, Pilar Zubiarrainek mafia bat dagoela horren atzean eta ez duela gurekin hitz egiteko gogorik esan zigun, eta Idoia Ariznabarretak dekalogo sinatzea txeki zuria sinatzea bezala dela erantzun zigun; EB-Aralar koalizioaren izenean, azkenik, ez genuen erantzunik jaso».

Honen guztiaren gainean, euskal preso politikoen familiarrek honako ondorioa ateratzeko dute: «Garbi adierazi dute alderdi politikoei espetzeak euskal preso politikoz beteta egotea ez zaiela axola, eta erabat baztertzeko dituztelako, batere kontuan izan gabe; bestalde, adierazi nahi dugu senideok umiliatuak eta frustratuak sentitu garelako, eta herritarrengatik politikoen gainean baino babes handiagoa jaso izan dugula».



Etteratek iragan larunbatean eginiko kontzentrazioa. ESTI EZEIZA

DEKALOGOA ▶

Tratu duin eta begirunezko jasotzeko eskubidea. Tortura eta tratu krudelik ez; ez isolamedurik, ez jipoirik; beraien nazio zein kultur identitatearekiko begirunea.
Osasun eskubidea. Osasun zainketa duina; konfiantzazko sendagileek ere bisitatuak izateko aukera.
Komunikazio eskubidea. Ez interbentziarik, ez murriztapenik; euskaraz ere komunikatzeko askatasuna.
Hizkuntza eskubidea. Beraien garapen integrala euskaraz burutzeko askatasuna.
Hezkuntza eskubidea. Ikasteko zangotrararik ez; ikasketak euskaraz ere burutu ahal izateko aukera.
Amatasun eta aitasun

eskubidea. Duintasun osoz presoek ama izateko aukera; aitarekin komunikazioei trabarik ez; kartzelan umeen bizitza kalitatearen errespetua.
Askatasunerako eskubidea. Baldintzapeko askatasuna aplikatzea zigorraren 3/4 edo 2/3 bete dituzten presoekin; legez dagozkien erredentzioak aplikatzea; larriki gaixo direnei berehalako kaleratzea.
Defentsa juridikorako eskubidea. Euskal Herrian eta elkarrekin bizitzeko eskubidea. Kolektiboak izendaturiko mintzakidetzaren aitorza; gainerako eragileekin harremanak izateko gaitasuna; eztabaida guneetan parte hartzeko askatasuna.

GUTUN@K ▶

LABen hausnarketa

Azken erabaki politiko-judizialak astinaldi galanta eman diote ordezkaritza eskubideari eta berdintasun demokratikoari. Erabaki horiek atzerapauso ikaragarria dira elkarriketa, negoziazioa eta akordioa bideratzeko Euskal Herriko estatu espainiar eta frantziarren mende pairatzen duen gatazkari irtenbide politikoko emateko orduan. PP eta PSOE garai batean onartutako Alderdi Legea ezartzeko asmoz, fiskaltzak eta estatuko abokatuak bultzatutako Auzitegi Gorenaren eta Konstituzio Auzitegiaren erabakiek milaka herritarren eskubide zibil eta politikoko urratu dituzte.

LABen ustez, erabakia guztiz politikoa izan da; gainera, PSOEren gobernuak ondo baino hobeto kalkulatu zuen erabakia bere osotasunean eta Imazek zuzendutako EAJren laguntza paregabea izan du. Az-

ken hilabeteetan, irtenbide demokratikoa eta bateratasun abagunea eraikitze borondatearekin bat ez datozen erabaki judizial eta politiko ugari hartu dira. Erabaki hau izan da garrantzitsuena eta PSOE gobernuaren denetik okerrera.

Alderdi Legearen aurka daudela esaten duten sektore politikoei erabakia normaltasunez hartzea salatu nahi du LABek. Oinarrizko eskubide zibil eta politikoko urratzen dituzten erabakia edozein hauteskunde kanpainatan gertaera arruntak balira legez onartzen dituzte.

Sektore politikoei bost axola die Madrilek oinarrizko eskubideak urratu eta hauteskunde baldintzatzen baditu. Bost axola die Madrilek erabakitzea nor den legala eta illegala Hego Euskal Herrian eta bost axola die erabaki horrek milaka herritarren aurkako jazarpen ikaragarria eragiten badu.

Zelan defendatuko dute Hego Euskal Herriaren eraba-

kitze eskubidea, Madrilek bultzatutako eskubide zibil eta politikoen urraketaz baliatzen diren sektore politikoei? Ikuspuntu abertzale eta demokratikoa dutenek, zelan egin dezakete hauteskunde kanpaina *normala* eta zelan babes ditzakete euskal herritar gehienek borondatearen aurkako baldintzak jartzen dituzten hauteskundeak?

Zenbaitzuen grinak, horrelako erabakien aurrean izan beharreko gutxieneko duintasuna ere galtzera eraman ditu; gogora dezagun, euskal herritarrei eta bere instituzioei jarritako inposizio bat izan dela PSOEren eta bere aparatuzko judizialaren erabakia. Baina Alderdi Legearen aurka daudela esaten dute; eta EAJ, EA eta EBk lege horrek dioena hitzez hitz betetzen dute EITB erakunde publikoaren bitartez.

Beraz, herritarren borondatea eta instituzioen osaketa demokratikoa errespetatzen ez duten erabaki antidemokratiko eta bidegabeak baldintzatu-

tako hauteskundeak dauzkagu parez pare. Baina orain arteko gutxi balitz, hainbat sektoreen ustez, EAE-ANVren aldeko bozka eskatze hutsa probokazioz jaten dute. Argi dago buruzagi politiko gehienek garrantzi gehiago eman diotela alkatetza lortzeari edo instituzioetan zuten ordezkaritza mantentzeari euskal herritarren borondatearen errespetuan eta aitortzen oinarritutako bake eta irtenbide demokratikoa bilatzeari baino.

Baina egoera hau ez da hauteskundeetara soilik mugatzen; PSOE eta EAJk testuinguru politikoa baldintzatzeko garatzen ari diren estrategiaren barruan kokatzen da erabaki hau. EAJ eta PSOE elkarriketa prozesua eta negoziazio politikoa gatazka amai dadin bideratu beharrean; hori lortzea ezinezkoa dela diote. PSOE konponbidea aurkitzeko prozesuak gaitasunak errespetatzen ez duten erabaki antidemokratiko eta bidegabeek baldintzatu-

nahi du. Bestalde, EAJk berriz ere, babesa eman dio PSOEri beste alderdi batzuen laguntzarekin. Hauek al dira prozesua aurrera eramateko euren konpromiso eta proposamen demokratikoa?

Egoera larri honetan LABek prozesuaren eta Euskal Herriko herritarren borondatea errespetatuko duen marko demokratikoaren alde lan egitera deitzen du; eta euren burua demokratizatzen duten alderdiei herritarren erabakia eta auzitegiaren erabakia errespetatzeko konpromisoa har dezatela eskatzen diegu.

Horregatik, bihar, LAB sindikatuak kontzentrazioak egingo ditu hegoaldeko lau hiriburuetan hauteskunde hauen izaera antidemokratikoa salatze, herritarren erabakia errespetatua izan dadila exijitzeko eta Euskal Herriko prozesu demokratikoa abiaraztea eskatze.

MARI MUJIKA (GOIERRI ETA
TOLOSALDEKO LAB-EKO
ARDURADUNA) ▶ TOLOSA

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du



EAE ▶

EAEk bozka eskatu du Beotibarko ekitaldian

Asteasuko EAEk herri programako 5 ildo nagusiak jorratzeko konpromisoa azaldu du



EAEren ekitaldia nazionala herenegun izan zen. A. IMAZ

ERREDAKZIOA

Tolosako EAE-ANV udal hauteskunderako zerrenda aurkeztu zuen herenegun Beotibar Pilotalekuan. Antton Izagirre, EAEren Tolosarako alkatetzarako hautagaia buru zutela, zerrenda kide guztiak gerturatu ziren jende multzoren aurrera agertu ziren.

Ekitaldia eskualdeko presoei eginiko omenaldiarekin hasi zen. Ondoren Tolosako eta inguruko eragile ezberdinek, euren alorretan zerikusia zuten hitzaldi laburrak plazaratu zituzten elkartu zirenen txalo artean. Euskara, emakumea, baserria, ekonomia eta gerontologikoaren inguruko eskaerak zabaldu zituzten, azken hau bereziki txalotua izan zelarik. Jarraian, Oria Barrutiko zerrendaburuak, Arantxa Larrinagak, hartu zuen hitza EAeri botoa emateko eskatuaz, «Euskal Abertzaleen Ekintzari bozka ematea, prozesuari bai esatea da, bozka erabilgarri bakarra EAERena da».

Ekitaldiari amaiera Antton Izagirrek eman zion. Herri programa aurkeztu zuen, ber-

tako puntu nagusiak azpimarratuz; gizarte zerbitzu publikoen alde, alokairuzko eta babestutako etxebizitzaren alde eta Tolosaren nortasun propioaren alde hitz egin zuen, gaur egun Udalak «saldu nahi duen iruditik urrun».

EAE Asteasun

Bestalde, Asteasuko ezker abertzaleak egin berri duen Herri Batzarrean EAE-ANV-rentzat bozka eskatu du eta parte-hartze normalizatua izan ala ez herri programan azalduko diren 5 ildo nagusiak jorratzeko konpromisoa azaldu du. Hauek dira Asteasuko EAEren 5 ildoak: herri txiki baten xarma eta nortasuna mantentzeko konpromisoa, etxebizitzak bertako herritarrei soilik zuzenduta eraikitzea, erakunde ofizialez gain herria dinamizatuko duen kultur talde zabal eta anitza sortzea, euskarari beste bultzada bat ematea, batez ere Udalgintzan eta Osasun Zentroan eta azkenik, Ipuomama proiektuaren inguruan herritarrei iritzia eskatzea, herri kontsulta baten bitartez.



Asteasuko ezker abertzalea, kanpainaren aurreko une batean. HITZA

EAJ ▶

Anoetan etxebizitzak eta Tolosan Alde Zaharra izan ditu hizpide EAJk

ERREDAKZIOA

Hauteskunde kanpainaren barruan, EAJk egindako bi ekitaldietan Anoetan etxebizitzak eta Tolosan Alde Zaharren inguruko proposamenak luzatu zituzten.

Anoetan EAJk etxebizitzak inguruko proiektuaren berri eman du. «Udalak Anoeta Lantzen taldearekin sinatutako hitzarmenaren arabera Lasarben 99 babestutako etxebizitza egin ahal izango dira», azaldu dute. «Horrela erosteko ahalmen murrizta dutenek, batez ere gazteek, aukera izango dute etxebizitza izateko». Bestalde, Anoeta Lantzen elkartearen papera nabarmendu dute: «Lurzoruaren kudeaketan Anoetak autonomia lortu du».



EAJren Azpiroz eta Otermin Lasarbe eremuko planoarekin. I. GARCIA

EAJ Tolosan

Atzo arratsaldean EAJk Errotan eginiko ekitaldian Tolosako Alde Zaharra datorren 4 urtean eraberritzen jarraitzeko apustua egin zuen.

Alde Zaharrean asko dira azken urteetan berriitu dituzten eraikin eta etxebizitzak. 63 eraikinek eta 55 etxebizitza eta lokalek horretarako diru laguntza jaso dute, hain zuzen, Erretengibel udal elkartearen bidez. «Datozen lau urteetan ere, diru laguntza hauekin jarraitzeaz gain, erroka nagusi bat dugu eskuartean, izan ere, Tolosarako onartu berri dugun Plan Orokorren barne, Alde



Tolosan atzo EAJk egindako ekitaldia. N. GARZIA

Zaharrerako Plan Berezia jorratuko dugu», azaldu zuten.

Plan honen barruan lokal komertzialen garrantzia azpimarratu zuten. «Tolosako Alde Zaharren garapen motorra jarduera komertziala da eta horregatik merkataritza txikiari laguntzak eman behar zaizkio».

Honetaz gain, atzoko ekital-

dian Oria ibaiaren ezker aldeko eremuaren eraberritzearen eta Abastos eraikina aisialdirako erabiltzearen aldeko apustu garbia egin zuten. «Hau da momentu honetan Alde Zaharrean eraberritzeko gelditzen den eraikin publiko bakarra. Gure apustua aisialdirako ekimendua izatea da», esan zuen EAJk.

EAK ▶

EAK kalitatezko enplegua sustatzeko bilera egin du Joseba Azkarragarekin

ERREDAKZIOA

Atzo Joseba Azkarraga Sailburua EAren hainbat hautagairekin eta Tolosaldea Garatzeko kudeatzailearekin bildu zen Tolosa aldean enplegua sustatzeko dauzkaten ideiak aztertzeko.

Joseba Azkarraga sailburuak azaldu zuenez, «lanaren egoera aztertu nahi dugu, kalitatezko lana bultzatzeko ikuspuntutik, bereziki». Azkarragak gizartearen dauden zenbait talde sozialen beharrak azpimarratu zituen, emakumeenak eta baztertuak, batik bat.



Artetxe, Gomez, Azkarraga, Lasa eta Iturzaeta. N. GARZIA

TOLOSA ▶

Iurre elkarteak bere eguna ospatuko du bihar

Etzi iurre elkarteak bere eguna ospatuko du. Aurtengoan gainera «berezia» izango da, 10 urte betetzen baititu. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun guztirako. Horien artean, meza, sakramentinoetan, ha-maiketakoa, toka txapelketa, txarangak, bazkaria...Hala, bazkide eta iurreko bizilagun guztiak gonbidatzen dituzte bertan parte hartzeko.

TOLOSA ▶

Hemen da VIII. Araxesko Mendi Itzulia

Amarozko Auzo elkarteak VIII. Araxesko Mendi Itzulia antolatu du, bi urtetik behin egiten duen modura. Mendi itzulia datorren ekainaren 3an izango da, eta 9-11 orduko iraupena izango du. Bertan parte hartu nahi duenak dagoeneko izena eman dezake doan. Horretarako, izen-deiturak eta zein herritakoa den adierazi behar dira, ondorengo telefonora deituta: 637 18 77 48 (Jose Luis); edo auzoetxe@kzgunea.net helbide elektronikora mezua bidalita.

TOLOSA ▶

Ekitaldiz betetako asteburua izango da Bonberenean

Bonbereneak, bere 10. urteurrena dela eta, maiatzeko antolatu dituen ekitaldien baitan, Angel Navasen *Chupando frío del polo sur a Alasca* diaporama izango da ikusgai, gaur, 19:00etan. Bihar, 20:30ean, Bide Ertzean eta Desordutan musika taldeak izango dira entzungai. Azkenik, larunbatean 17:00-etatik aurrera, Pirritx, Porrotx, eta Mari Motots izango dira Bonberenean, bertako txarangarekin batera.

TOLOSA ▶

Igarondok saski «eder» bat zozkatuko du

Sanjoanok direla eta, Igarondo Merkatarien elkarteak promozio berri bat jarri du martxan, 3.000 euroko balioa duen sarki baten zozketa, hain zuzen ere. Horretarako, elkarteak kide diren denden bezeroen artean 100.000 txartel banatuko dituzte. Promozio hau ekainaren 22an amaituko da, eta egun hone-tan ONCEko zozketan atera-ko da zenbaki irabazlea.

TOLOSA ▶ KULTURA



Arrabal taldeko kideen emanaldietako bat. HITZA

Tango doinuak Leidor aretoan

‘El corazon del sur’ ikuskizuna eskainiko dute gaur, Arrabal taldekoek

ESTI EZEIZA

Hugo Alberto Elorza argentinarrek *El corazon al sur* tango ikuskizuna aurkeztuko du bihar, 20:30ean, Leidor aretoan. Emanaldi honetan, Arrabal taldekoek tango argentinarreko hainbat kantu klasiko interpretatzen dituzte. Honez gain, argentinar folkloreko doinu ezberdinetatik musika ibilaldi bat egiten dute. Hau dena, dantzaz lagunduta. Umorerako tar-terik ere izango da ordubete inguru iraungo duen ikuskizun berezi honetan.

Nafarroako Arrabal taldea

duela sei urte hasi zen Tolosara etortzen, beti ere, Argentina-ko doinuekin. Izan ere, taldeki-deak 2000. urtetik, Egan (Nafarroa) bizi badira ere, sortzez argentinarrek dira.

Elorza txikia zela hasi zen argentinar musika zabaldu nahian. Horren adibide, egun Onda Cero irratiari aurkezte gisa egiten du lan, latinoamerikar musika, eta bereziki, tangoak jartzen duten saio batean. Bestalde, berak sortu zuen Arrabal taldea, non tango doinuak Euskal Herrian eta Espainian zabaltzen egiten duten lan.

TOLOSA ▶

Hiru tolosar Gipuzkoako Aurreku Txapelketan**Larunbatean 19:00etatik aurrera jokatu dute Pasai Donibanen**

E. EZEIZA

XXVII. Gipuzkoar Aurreku Txapelketa jokatu dute etzi, larunbatean, Pasai Donibaneko kiroldegian. Pasaiaiko Udalak, Gipuzkoako Dantzarien Biltzarrek eta Alkarkide Alkartasunako Dantzari Ohiak taldeak antolatuta ekitaldia 19:00etan hasiko da.

Guztira 12 dantzarik hartuko dute parte, eta horietatik hiru tolosarrak izango dira: Aritz Iglesias, Iñigo Iraola eta Jon Vazquez. Dantzariak prestatu beharreko dantzak honako hauek dira: Ormatxulo soinu zaharra, Eskua aldatzeko soina (alpagata), Kontrapasa (Agurra), Aurkez aurke eta Zortzikoa.

Epaimahaia Gipuzkoako Dantzarien Biltzarrek izendatutako host pertsonak osatuko dute: Jesus Mari Garate, Jose Luis Vallejo, Nagore Indakoetxea, Santi Bañales eta Xabier Mendizabal.

Irabazleak Tomas Murua Saria eramango du, hau irabazlearen udaletxean gordeko dena hurrengo edizioa ospatu arte. Honez gain, urrezko domina, Kutzaren trofeo, Dantzarien Biltzarren buruzagi makila, txapela, gerrikoa eta 400 euro eraman ahal izango ditu larunbateko irabazleak.

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- ERIZAINNTZA LAGUNTZAILEA
- FARMAZIA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- DIAGNOSI IRUDIA
- OSASUN DOKUMENTAZIOA
- GIZARTE INTEGRAZIOA
- HAUR HEZKUNTZA

IZEN EMATEA: MAIATZA

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

TOLOSA ▶ MUSIKA

Kea ahots taldeak, izen bereko bere azken lana aurkeztuko du Bilbon

Enrique Azurzak zuzenduta, beraien hirugarren diskoa da hau

E. EZEIZA

Kea ahots taldeak bere hirugarren diskoa aurkeztuko du gaur Bilbon. Azken lan honek taldearen izen bera darama, Kea. Tolosako taldea 13 kidek osatzen dute, Enrique Azurza gidari dutela. Azurzak berak burutuko du aurkezpena eta

berarekin batera Jon Santos artista iruindarra ariko da, diskoaren edizioarekin bat datorren liburuxkaren ilustrazioen egilea.

Zuzendariaren esanetan, «oso orijinala da lan hau. Azken mendeko abesbatza musikako piezak biltzen ditu, desberdinak elkarren artean, eta

oso pieza landuak edo zailak». Antologia bat da, eta beraiei gehien gustatzen zaizkien piezekin osatu dute, bederatzitik guztira. Liburuari dagokionez, Jon Santosek diseinatu du, eta oso berezia da. 1.000 ale kaleratu dituzte guztira, eta guztiak dira desberdinak. Serie zenbakitua da.

ALBIZTUR ▶ KULTURA

Ipuina eta hitzaldia dira Kultur Asteari bide emango diotenak

Ez da urteroko herriko mugak ikusteko ibilaldia faltako, eta 'Bota Patsa' antzerkia izango da aurtengo deigarriena



Aurten ere eskolako ikasleek egindako antzerkia izango da. ESTI EZEIZA

NEREA URBIZU

Albizturren bost egunetan zehar herritarrei nahiz kanpotarrei zuzenduriko kultur ekitaldiak antolatzen dituzte, bai Udalak eta baita Arkaitz elkarteak ere. Aurtengo Kultur Astearen deigarriena *Bota Patsa* antzezlan izango da, ekainaren 2an izango dena, alegia.

Baina gaur emango diote hasiera Kultur Asteari, Idoia Sanchez ipuin-kontalariarekin. 18:15ean izango da saioa liburutegian. Ordu berean, gurasoei zuzenduriko hitzaldia izango da, eta psikologo batek bideratuko du.

Nolega programaren baitan, herenegun Albizturren antzerki bat eskaini zuten ikasleek: bihar errepikatu egingo dute, baina herritarrentzat. Hau, eskolako psikomotrizitateko gelan izango da. Eskolako zuzen-

dariak esan zuen bezala, «bi hilabete daramatzagu prestatzen, eta eskainiko dutena *Amona honekin kontuz* izango da».

Urtero herriko mugak ikusteko ibilaldia antolatzen du Udalak, eta aurten ere izango da, igandean. 07:30ean aterako dira plazatik, eta Erriotik Urkizu aldera joango dira. Hamaitakoa ere izango da ondoren.

Bota Patsa antzezlan izango da aurtengo ekitaldirik garrantzitsuenak. Eskualdeko aktoreak bertan, eta umorea jorritzen dute Iker Galartzak eta Joseba Usabiagak. Kultur Etxean izango da ekainaren 2an, larunbatean.

Ekainaren 3an share erakustaldia izango da, eta ondoren, pilota partida onak; Telleria, Telletxea, Senperena, Narbarre, Renobales eta Olaetxea.

EGITARAUA ▶



Antzerkia, ekainaren 2an. HITZA

GAUR

18:15. Idoia Sanchez ipuin-kontalaria liburutegian.
▶ Gurasoentzako psikologo baten hitzaldia, ordu berean.

BIHAR

19:00. *Amona honekin kontuz* antzezlan, eskolako ikasleek egina.

ETZI

07:30. Herriko mugak ikusteko ibilaldia. Plazan bilduko dira; Erriotik Urkizu aldera. Gero, hamaitakoa.

EKAINAK 2, LARUNBATA

22:00. *Bota Patsa* antzerkia Kultur Etxean. Zuzendaria: Begoña Bilbao. Txalo produkzioak.

EKAINAK 3, IGANDEA

12:00. Pilota partidak: share modalitate eta ondoren, Telleria-Telletxea Narbarre-Senperena, eta Renobales Olaetxearen kontra, lau t'erdian.

TXIRRINDULARITZA ▶

Alegiatik Ikaztegiara ibiliko dira bizikletaz

Alegian ginkana izango da plazan eta gauean afaria; Anoetan proba bat izango da



Languarre txirrindulari elkarteak urtero antolatzen du ginkana. o. e.

N. URBIZU

Etzi, Alegiko kirol ekitaldi berrien baitan, Languarre Txirrindulari elkarteak antolatutako herriko bidegorriaren ezagupena eta ginkana izango da. Honetarako, 11:30ean elkartuko dira herriko plazan.

Gurasoak eta haurrak elkartuko dira herriko plazan, eta bizikletaz Ikaztegiara joan-etorria egingo dute bidegorritik. Ondoren, plazan otopoz beteriko probak egingo dituzte bizikleta gainean. Bertan, eskolako ikasleak ibiliko

dira. 21:00etan, berriz, plazan futbolekoek denboraldia amaitzeko zahagi sagardoa jarriko dute; afaria, norberak eramanez gero, edaria zerbituta izango dute.

Anoetan etzi, proba

Languarre txirrindulari elkarteak, bestalde, Anoetan etzira proba bat antolatu du, 16:30ean. Honetan alebinak eta infantilak ariko dira. Herrian barna izango da proba, Alkiza aldera joaz, eta plazatik abiatuko dira.

ANOETA ▶

Gaur KZgunearen bisita izango dute 16:00etan

Anoetan KZgunean tutorearen bisita izango dute gaur arratsaldean. 16:00etatik 20:00etara izango da, eta 18:00etatik aurrera ikastaroa izango da; kasu honetan, herritarren txartel elektrikoa erabiltzen irakatsiko dute. Ikastaroa egotearekin, beraz, nabigatzeko bi ordu izango dira soilik, 16:00etatik 18:00etara, hain zuzen ere.

UGARTE ▶

Betizu jatean, trikitixa doinuak eta bertsolariak

Betizu jatea izango da Ugarte auzoan, etzi. Helduek 27 eurora dute txartela, baina haurrek 12 euro ordainduko dituzte bakarrik. Betizua prestatzen 06:30ean hasiko dira, 14:00etarako gozo-gozoa egoteko. Trikitilariak eta bertsolariak izango dira pilotalekuan, bazkaria girotzeko. Egunean bertan ere txartel batzuz izango dira salgai.

**ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶

Maria Sagastume Galarza
(Beltzaren ama)

Zure irrifarra
gurekin geratuko da

Amezketako ezker abertzalea

AMEZKETAN, 2007ko maiatzaren 23an

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko maiatzaren 24a, osteguna ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **20** hotzena **16** BIHARRO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA 902 82 02 01
 (balantza argitzeko, harpidetun egiteko...)

AGENDA ▶

DEIALDIK

Alegia. Fabrensa lantegiko langile ohien afaria izango da ekainaren 2an Tolosako Amets jatetxean. Izen-ematea, 943 675405 telefono zenbakian.
Bedaio. Harri Festa egingo dute Bedaion egun osoan zehar: meza, bertsolariak, bazkaria, trikitalariak, afaria...
Bidegoian. Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa izango da Bidegoiangon eskolan 17:00etan eta Albizturko liburutegian 18:15ean.
Ibarra. *Pakistan: ekialdearen eta mendebaldearen artean, egoera geopolitikoa* gaia aztertuko du Txente Rekondo Nazioarteko Ikerketarako Euskal Lantaldeko kideak Ibarra Kultur Etxean 19:00etan.
Tolosa. Angel Navasen *Chupando frio del Polo Sur a Alaska* diaporamak eskainiko dituzte Bonberenean 19:00etan.

ZINEMA

Tolosa. Ch. Laughton zuzendariaren *La noche del cazador* filma emango dute Zine-forumean, Leidor aretoan 21:45ean.
Tolosa. *Piratas del Caribe 3* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: ostiralean 22:30ean, larunbatean 19:30ean eta 22:30ean, igandean 19:30ean eta astelehenean 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Irurtzun. Mutilloa, A. San Martin, 5. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5. 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEIZALDEKO HITZAREN errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketak, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (erreplikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Lasa Coloma anaia alegiarrak: Eneko, 3.200 kiloko amuarrainarekin. Beñat benjaminetan txapelduna izan zen, 8 barbo arrantzatuta. HITZA

Handiena... zein ote?

TOLOSALDEA ▶ Batzuk txapelketetan eta beste batzuk txapelketatik kanpo, denak ere eskualde berdinean harrapatutako arrain ederrak izan dira



Aritz Hernandez tolosarra: Albizturren kilo eta 200 gramokoa arrantzatu zuen. 7 urte ditu. HITZA

Jon Garmendia: 49 zentimetrokoa. San Josen aterata, atzo. Amuarraina gero aske utzi zuen. A. IMAZ

NEREA URBIZU

Gezurra badirudi ere, gure erreka batzuetan amuarrainak bizi dira. Ez dugu esango, ordea, jateko aproposak direnik, bada ez bada.
 Igandean Tolosan herriko arrantzaleek antolatutako 33. Arrantza Txapelketa izan zen, eta bertan, Alegiko Eneko Lasa infantiletan garaile izan zen, 4 amuarrain aterata. 68 zentimetroko pieza bat ere ateratu zuen.
 Anaia, Beñat, benjaminetan txapelduna izan zen, 8 barbo ateratu baitzituen. Garaikurrak izan zituzten biek.
 Albizturren Aritz Hernandezek harrapatu zuen amuarraina, Aritzek bakarrik ezin izan zuen ateratu, aitzak lagundu behar izan zion. Atzo bertan ere, Jon Garmendia ibartarrak San Josen amuarrain handia ateratu zuen, berriz ere aske uzteko, eskualdeko uretan barna.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Unai Altuna Esnaola (Alegia). Gaur 4 urte. Muxu bat familiaren partetik, bereziki Gorkak.



URTE ASKOAN
 Irati Aramendia Bartolome (Tolosa). Gaur 4 urte. Muxu bat Eneko eta familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leiztan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea
 Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...